

urtea

## A U R K I B I D E A

1 Kontzeptuak

2 Urratsak

3 Aktibitateak

4 Ebaluaketa

5 Jakintasunak eta hizkuntza edukiak

**1 KONTZEPTUAK**

Hilabete bat lau astez bederen egina da. Hilabetea 30 edo 31 egunez osatua den denboraldia da. Otsaila salbuespena da, hiru urtez segidan 28 egun dituelako, eta laugarren urtean 29 (bisiturtea).

Urteko hilabeteak hauek dira, ordenan : urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, uztaila, abuztua (agorrila), iraila (buruila), urria, azaroa eta abendua.

Zubereraz : urtarila, barantaila, martxoa, apirila, maiatza, arramaiatza, üztaila, agorrila, bürüila (setemere), ürrieta, azaroa, abentüa.

Urte zibila : urtarrilean hasten eta abenduan bukatzen den denboraldia da, jendeak hala hitzarturik.

Ikasturtea : eskolako denboraldia da. Irailean hasten da eta uztailean bukatzen.

Urtaroak lau dira : udaberria (primadera), uda, udazkena (larrazkena) eta negua. Zubereraz : bedatsea, üda, üdazkena (larrazkena), negüa.

Urtaro bakoitzak hiru hilabete irauten du.

**2 URRATSAK**

Ikasleak dakitenetik abiaraz.

Zikloaren hastapenean, urtea zer den zuzen ez daki haurrak. Beraz, beharrezkoa da berak izan dituen esperientziatik abiatzea.

Emeki-emeki, ikasi arau, haurra urtearen iraupena neurtzen hasten da eta irudikapena emaiten dio. Zikloaren bukaeran urtearen mugak ongi finkatuak izan behar ditu, bai eta urte zibilaren eta ikasturtearen arteko ezberdintasuna ikusi.

**3 AKTIBITATEAK**

Proiektu batean urteko egutegi baten eraikitzea sar daiteke. Horretarako baitezpadakoa da egutegi baten ezau-garrien aztertzea.

URTEA MARKATZEN DUTEN BESTAK ETA GERTAKARIAK

**Ikasturteari lotuak**


Udako oporrak  
 Eskola sartzea  
 Neguko oporrak  
 Ikasturte berria eta gelaz aldatzea  
 Eskolako urte bukaerako ateraldia

**Eskolan edo berdin kanpoan (familian, jendartean...) ospatzen direnak**

Eguberri - Ihauteriak - Bazko  
 Amen besta - Saindu izenaren eguna  
 Adinaren urtemuga - Eskolaren besta  
 ...


*Urtean zehar, horiek oro aipatzeko edo ospatzeko parada bada ikasgelan. Bakoitzean eta aldi guziz, hurrei oroitarazi behar zaie bizi dutena beti errepikatzen den ziklo batean dela. Ondorioz, haurrak hor aurkituko ditu behar dituen ezaupideak.*

▼ **Haurra eta sorturte mugak xerrenda batean.**  ikaslearen 1. fitxa.



Haur bakoitzak bere bizitzaren irudikapena egiten du eta biñeta batzuen bidez bere bizitzan izan diren gertakari nagusiak emaiten ditu.


▼ **Haurraren sorturtea eta bere burrasoena ormirudian.**



Ondotik haur bakoitzak gisa horretako xerrenda asma dezake bere bizitzaren (familiarena barne) irudikapenarekin.

## URTEAK NOLA KONDA

Jesus-Kristoren sortzea oinarritzat hartzen dugu.



■ Beste eredu batzu izan ditugu historian zehar. Adibidez, Frantziako lehen errepublikaren ereduak.

I, II, III, IV, V...

### ▼ Konparaketak

Haurrari azken hiru urteetako egutegiak ekarraraz etxetik eta konparaketa egin. Urteei doazkien zifrak ikus (adibidez 1998/1999/2000). Ondotik, urtean zehar kokatzen diren ohiko besten data konpara (Eguberri, Bazko, amen besta...), eta ohartaraz 2000ko urriaren 7a ez dela, 1999an bezala, ostegunarekin gertatzen.

### ▼ Txinako egutegiarekin josta ikaslearen 2. fitxa

<i>Dragoiaren urtea</i>	2001	<i>Bufaloaren urtea</i>	2009
<i>Sugearen urtea</i>	2002	<i>Tigrearen urtea</i>	2010
<i>Zaldiaren urtea</i>	2003		
<i>Ardiaren urtea</i>	2004		
<i>Oilarraren urtea</i>	2005		
<i>Xakurraren urtea</i>	2006		
<i>Urdearen urtea</i>	2007		
<i>(G)arratoinaren urtea</i>	2008		

**URTE ZIBILAK ETA IKASTURTEAK**

Haurrek urte zibila eta ikasturtea ongi bereizten ikas dezaten, bi xerrenden erkaketa eginaraz.

▼ **Talde lana**

Eguneroko bizitzan, urte zibiletik ikasturtera iragaitea anitzetan gertatzen zaie. Ikasleek, urtearen zenbakia hilabetearen gain aldean eman behar dute. Ondotik, oporrei doazkien biñetak asmatu eta, toki egokietan ezarri behar dituzte. Lan hau elgarrekin egin dezakete eta ormiduri itxuran agert.

20..	20..	20..	20..	20..	20..	20..	20..	20..	20..	20..	20..	20..
iraila	urria	azaroa	abendua	urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	agorrila	
oporrak												

?

?

▼ **Banazkako lana** *ikaslearen 3. fitxa*

Haurrei bi xerrenden erkaketa proposatzen zaie.

**DENBORAREN ARDATZEAN. GERTAKARIAK LEHEN ETA ORAIN**

*ikaslearen 4. fitxa*

1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004
------	------	------	------	------	------	------	------	------	------

➔

**DATA NOLA IDATZ EUSKARAZ** *ikaslearen 5. fitxa*

Euskaraz, lehenik urtea idazten da, ondotik hilabetea eta azkenik, egunaren zenbakia, bai eta egunaren izena, beharrean. Adibidez, azpian duguna horrela idatziko dugu : 2002ko apirilaren 8a(n), osteguna

2000

2001

2002

2003

urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina
-----------	---------	---------	---------	---------	--------

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
---	---	---	---	---	---	---	---	---	----	----	----	----	----	----

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata (ibiakoitza)	igandea
------------	-----------	------------	----------	----------	---------------------------	---------

**URTAROAK EZAGUT EGUNEROKO EGINTZETAN ETA URTEAN ZEHAR**

Nahiz eta zaila izan urtaroen ongi neurtzea eta mugen emaitza, badira ikasgela batean urtaroei lot daitezkeen egintzak (fruitu biltze, zuhaitz landatze, meteo aipamen, besta ospatze, ateraldi...). Horietaz balia gaitzke. Artetan, urtaroen aipamena ere egin daiteke naturaren aldaketa handiez baliatuz, hala nola hostoen erortzeaz, hostoen sortzeaz, zuhaitzetan kimuen (popoien) sortzeaz, onddoez...

**URTAROEN EZAGUTZA EGIN EGUNEN ARGIALDIAREN IRAUPENA NEURTUZ**

Ormirudi edo taula handi bat asma daiteke eguzkiaren sortzearen eta sartzearen tenoreak markatuz. Lan hori abiapundutzat hartuz behatze eta erkaketa frango egin daiteke.

**URTAROAK IDATZ**

▼ Hilabeteak multzoka emanez, urtarook osa  ikaslearen 6. fitxa

Multzo bakoitzari kolore bat eman. Xerrenda bat egin eta luzean atxik edo zilindro gisa eman puntak estekatzuz.

<b>Udaberria</b>											
urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	agorrila abuztua	buruila iraila	urria	azaroa	abendua


▼ Erranaldiak urtaroekin lot  ikaslearen 6. fitxa

Eguzkiarekin eta beroarekin loreak atera dira pentzean.  
Gaztainak atzeman ditugu hosto erorien azpian.  
Elurrak gure etxeko teilatu gorria zuritu du.  
Hondartzan, nire kusiekin bainatu eta jostatu gara.  
Paltoa, galtzerdi lodiak, lepokoa eta burukoa janzen ditugu.


<b>UDA</b>
<b>UDAZKENA/LARRAZKENA</b>
<b>NEGUA</b>
<b>UDABERRIA/PRIMADERA</b>

**URTAROEN IRUDIKAPENA**  ikaslearen 7. fitxa

▼ Marrazkiak ordenan eman xerrendan. Lan hau ikasgelako ormirudian egin daiteke.



▼ Irudikapena borobilean



urtea

4. EBALUAKETA

lehen ariketa

Hizkuntza

Denboraren egituraketa

Ondoko zerrendetan, hilabete bat beti eskas da. Zuri doakizu urtearen emaitza bere osotasunean.

1. ordenan

urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	agorrila (abuztua)	iraila	urria	azaroa
urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	ekaina	uztaila	agorrila (abuztua)	iraila	urria	azaroa	abendua
urtarrila	otsaila	martxoa	apirila	maiatza	ekaina	uztaila	agorrila (abuztua)	iraila	azaroa	abendua

2. nahasian


otsaila	azaroa	maiatza	agorrila (abuztua)	martxoa	uztaila	urtarrila	iraila	apirila	ekaina	urria
urtarrila	uztaila	otsaila	abendua	iraila	maiatza	azaroa	urria	martxoa	apirila	ekaina

2. ariketa

Hizkuntza

Denboraren egituraketa

Urtaroak idatz itzazu doazkien segmentuetan.



urtea

3. ariketa

Hizkuntza

Denboraren egituraketa

1997

urria					
astelehena		6	13	20	27
asteartea		7	14	21	28
asteazkena	1	8	15	22	29
osteguna	2	9	16	23	30
ostirala	3	10	17	24	31
larunbata	4	11	18	25	
igandea	5	12	19	26	

Egutegi honetan inguraturik agertzen diren datak idatz itzazu (urtea, hilabetea eta eguna).

---



---

4. ariketa

Hizkuntza

Denboraren egituraketa

Urte baten irudikapena egutegian. Hilabeteak aitzurrekin motz eta itsas itzazu egutegi honen lauki egokietan :

urtarrila						
Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

apirila						
Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

iraila						
Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29

abendua						
Al.	As.	Az.	Og.	Or.	Lr.	Ig.
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

	agorri	



Goi maila

Hizkuntza

Denboraren egituraketa

Buru eragiketak.

Eman ezazu erranaldiaren ondoan doakion urtea.

Maddik 6 urte beteko ditu 2002 urtean. Zein urtetan sortu zen? .....

Mikelatsek 14 urte beteko ditu 2012 urtean. Zein urtetan sortu zen? .....

Eneko 1998an sortu zen eta Idoia baino 2 urte zaharragoa da. Noiz sortu zen Idoia? .....

2002

2000

1998





1996

## 5. JAKINTASUNA ETA HIZKUNTZA TAULAK

## ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK

**1 Espazioaren eta denboraren oinarriko kontzeptuen eraikuntza**



(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 88. or.).

Bere burua, iragan edo etorkizun hurbilean koka dezake eta gero aitzinatuz bezala, urrunagoko iraganean eta etorkizunean.	
Urtea kudeatzen edo antolatzen duten egutegiaren ezagutza egiten du (urtea, ikasturtea, sasoinen zikloa...).	
Bere espazio ezagunaren irudikapen sinpleen egiten hasten da eta gero experimentazioetik urrundua dauden espazio abstratuagoak konduhan hartzen ditu; bere burua horietan kokatzeko ahal du.	
<b>2 Metodologia jakintasunak</b> (ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 89-91 or.) Notizietan eta liburuxketan dauden argitasunen erabiltzeko gai da.	

## ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN HIZKUNTZA JAKINTASUNAK



**1 Ahozko hizkuntza erabili**

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 94. or.).

Bere ekoizpenen, jarreraren eta ekimenen aipatzeko, haurrak bere solasaldia eskema logiko batean sartu behar du.	
Haurrak, plantan hitzegiteko eta joskera osatuagoaren erabiltzeko gai izan behar du.	

**2 Hizkuntzaren menperatzeko jakitateak**


(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 100-101. or.).

<b>Hiztegia</b> : haurrak, kontestuaren arabera, hitz baten erranahi zehatza bereizi behar du.	
<b>Ortografia</b> : testu bat hutsik egin gabe kopia behar du.	


## ERABIL ETA LANT DAITEZKEEN ERAKAS ALORRETAKO JAKINTASUNAK








**1 Matematika/neurriak**

(ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 111. or.).

Memento batzuen ezagutzeko edo iraunaldien kalkulatzeko egutegia eta ordulari digitala edo berdina orratzekilakoa erabiltzen jakin behar du.	
--	---

**2 Munduari ohartu** (ikus Frantziako hezkuntza ministerioko lehen mailako eskolen programak, 112. or.).

Urrats kronologikoen ordenatzen hasten da urruneko iragana bereiziz. Horretarako, zibilizazio elementu batzuetatik eta berak belaunaldiez duen esperientziatik abiatzen da.	
---	---

Iraganari dagokion informazio bat identifikatzen du kronologia batean kokatuz (lehen, gero, denbora berean).	   
Plano simple bat bere argibideekin eraikitzen hasteko eta baliatzeko gai izan behar du. Jendeei buruzko geografia eta geografia fisikoari dagozkien elementu batzuen hiztegi zehatzaren erabiltzeko ere bai (auzoa, hiria, herria ; baserria ; eguraldia ; zelaia, mendia ; etxaldea, lantegia, saltegia...).	
Ikertu dituen inguruetako elementu zenbait ezagutzen ditu aireko argazkietan eta planoetan.	
Mapetan, lur bolan edo planisfero batean kokatzen ditu ikertu dituen inguruneak.	

**HIZKUNTZA EDUKIAK**

GRAMATIKA EDUKIAK	ADIBIDEAK
<b>1. Aspektua</b> Bururatua/ez-bururatua/gertakizuna Aditz nagusiaren aspektu-markak : -TU/-TZEN/-KO <b>2. Tempusa *edun eta izan</b> aditz laguntzaileekin Orainaldia/iraganaldia	Bi urteren buruan, atzerrira joanen gara familia guziarekin. Duela lau urte nere ikasgelan margotu genuen orma haundi bat.
- (a) N inesiboa	Xan Baionan sortu da. 1987an bizitzera etorri ginen Baionara.
Denborazko formula bereziak Data nola idatz	Heldu den urtean, iaz, duela..., hiru urteren buruan... 1998ko urriaren 7a

HIZTEGI EDUKIAK	
Zenbatzen ikasi	1... ...2000 raino
Urtaroak edo sasoinak	Udaberria (primadera), uda, larrazkena (udazkena), negua.

urtea